

European Dual Studies University

Liburu Zuria

2025

«Munduko hezkuntza dualeko aliantzarik handiena
sortzeko asmoa dugu»

EU4Dualen Liburu Zuria

2025eko edizioa

Hezkuntza dualaren eta lanean oinarritutako ikaskuntzaren etorkizuna eraikitzen:

Interes-taldeek ekarpenak eta gomendioak

#HezkuntzaDuala #Mugikortasuna #Ikerketa #Enpresak #Unibertsitateak
#Gobernuak #LurraldeGarapena #Enplegarritasuna
#LaneanOinarritutakolikaskuntza

Laburpena eta oharak

EU4Dual proiektuak erreferentzia globalik onena izan nahi du hezkuntza dualaren eta lanean oinarritutako ikaskuntzaren (WBL, ingelesezko sigletan) ereduak sustatzen eta babesten duten unibertsitate eta interes-taldeentzat, eta aliantzarik handiena sortu nahi du haien artean.

Liburu Zuriak industriako ordezkarien, tokiko gobernuetako arduradunen, ikasleen ordezkarien, beste interes-talde batzuen eta Aholku Batzordeko kideen informazioa eta ekarpenak laburtzen ditu, hezkuntza-eredu hori Europa osoan zabaltzeko gomendio praktikoak eskaintzeko helburuz.

Jasotako iruzkinek agerian jarri dute arlo akademikoak eta industriak elkarrengana hurbildu behar dutela, lehenik; bigarrenik, garrantzi handikoak direla ikaskuntza-eredu malguak eta moldaerazak, eta, hirugarrenik, gobernuak eta industriak ezinbesteko eginkizuna dutela ekimen horiek bultzatzeko orduan.

Helburuok lortzeko, epe laburreko neurriak eta epe luzeko ikuspegia laburbiltzen ditu agiri honek.

1. Sarrera

EU4Dual ekimenak ahalegin eraldatzaile bat izan nahi du, hezkuntza dualaren eta lanean oinarritutako ikaskuntzaren bidez hezkuntza-eremuak lan-merkatuaren beharretara egokitu daitezela. Hala, ikaskuntza akademikoa laneko esperientzia praktikoan txertatuz, ikasle gradudunen enplegarritasuna handitzeko eta hainbat sektoretako kualifikazio-eskasiari erantzuteko asmoa du proiektuak.

2. Testuingurua

Hezkuntza dualaren eta lanean oinarritutako ikaskuntzaren (WBL) ereduak irakaskuntza teorikoa eta languneko esperientzia praktikoa konbinatzen ditu. Eredua onuragarria da ikasleentzat, hezkuntza-erakundeentzat eta enplegatzaileentzat; izan ere, benetako munduko esperientzia eskaintzen die ikasleei,

eremu akademikoaren eta industriaren arteko lankidetzak sustatzen du, eta curriculumak lan-merkatuaren oraingo eta etorkizuneko eskakizunetara egokitzen direla bermatzen du.

Zergatik?

Ikaskuntza akademikoaren eta benetako munduko lanbide-esperientziaren artean zubiak eraikitzeak beharri erantzuteko sortu da EU4Dual. Integrazio hori funtsezkoa da hainbat industriatako enplegarritasuna handitzeko eta kualifikazio-eskasiari aurre egiteko.

Nola?

Alde batetik, unibertsitateen, hainbat industria-sektoreen eta gobernuen arteko lankidetzak bultzatuz, eta, bestetik, hezkuntza-esparruko mugikortasuna, berrikuntza eta ekintzailak sustatuz.

Zer?

Gure helburua da hezkuntza-sistema dual jasangarri eta berritzailea sortzea, hezkuntza-emaitez lan-merkatuaren beharretara egokituko dituen eta eskulan kualifikatua eta etorkizunari begira moldaeraz prestatuko duena.

Misioa eta ikuspena

Hau da gure misioa: nazioz haraindiko hezkuntza duala —hau da, ikasleen, arlo akademikoaren eta enpresa-esparruko interes-taldearen arteko lankidetzak estuan oinarritutakoa— Europari gizarte-erronka handiei aurre egiten laguntzeko erabiltzea. Erronka horien artean, klima-aldaketa, deskarbonizazioa eta digitalizazioa azpimarra ditzakegu. Horiek guztiek presentzia handia izango dute gizartean, oro har, eta industrian, bereziki, eta lan- eta lanbide-ingurune berria ekarriko dute. Gure erakundearen profil bereziak oso eginkizun garrantzitsua izango du erronka horiei aurre egiteko orduan.

Gure ikuspena, berriz, hezkuntza dualaren erreferentzia globalik onena izatea da. Munduko hezkuntza dual integratuko erakunderik handiena sortuko dugu: diziplina anitzeko erakundea, campus ugari dituen, eta arlo akademiko, industria eta eskualdeak ezin hobeto uztartzeko konpromisoa duena. Baterako ezagutza espezializatua aprobetxatu nahi dugu, hezkuntza dualaren bidez gizarteari industriaren erronka globalak gainditzeko, Europa ekologikoagoa, zuzenagoa eta ekonomikoki emankorragoa izan dadin.

Printzipio gidariak

- Goi-mailako hezkuntza duala (DHE, ingelesezko sigletan) jardunbide egokia da, partekatu eta hobetu behar duguna: gure unibertsitateko jarduera guztiek hezkuntza dualaren balioak bereganatu behar dituzte, eta ikasleek, arlo akademikoak, industriak eta gizarteak berak ere parte hartu behar dute jarduera horietan. Gure asmoa da, alde batetik, laborategi gisa aritzea, non hezkuntza dualaren inguruko ideia berriak sortuko diren, eta, bestetik, jardunbide egoki globala izatea, hezkuntza-eredu horrek gizartearen garapena bultzatzea dezakeela erakutsiko duena.
- Goi-mailako hezkuntza duala garatzen eta zabaltzen jarraitu behar dugu: Europan hezkuntza dualaren presentzia eta kalitatea handitzeko asmoa dugu. Horretarako, hezkuntza dualako programen irismena eta kalitatea handituko ditugu gure unibertsitatean bertan, kide berriekin lankidetzan arituz eta, beharbada, horiek unibertsitatean onartuz, eta hezkuntza dualaren sektore osoan ikerkuntza eta garapena bultzatuz. Kalitatea eta hazkundea sustatzeko agenda

hori babestuko dugu, bai gure kabuz, bai gure interes-taldeekin lankidetzan arituz, kide bakoitzak bere erritmoan eta bere testuinguruan aurrera eginez, baina, betiere, helburu orokorra lortzen saiatuz.

- Baterako lehentasunak finkatzea: misio batean oinarritutako erakundea izanik, gure interes-taldeek finkatzen dituzte lehentasunak, lan-munduaren (WoW, ingelesezko sigletan) eta eskualdeen beharrei erantzuteko. Gure langileek eta ikasleek —haiek ere erakundeko kideak baitira— interpretatzen eta aplikatzen dituzte lehentasun horiek. EU4Dual unibertsitatea kolektiboki kudeatzen da, erakunde bakoitzaren zuzendaritzapean; baina, estrategia batera erabakitzen badugu ere, kolektiboak ezin dio bere nahia inposatu gutxiengoari. Identitate kolektiboa bultzatzen dugun arren, nortasun indibidualei ere eusten diegu.

Partzuergoaren ikuspegi orokorra

- **9 unibertsitate**
- **40 campus**
- **74.420 ikasle**
- **6.691 langile**
- **17.000 enpresako interes-talde**
- **9 herrialde**



EU4Dualen lehentasun/misio/jarduera nagusiak



1. Kalitatezko esparru bat sortzea goi-mailako hezkuntza dualerako

- Goi-mailako hezkuntza dualari (DHE) buruzko ezagutza-trukea ezartzea lan-munduari (WoW) eta goi-mailako hezkuntza-erakundeen (HEI) artean; hots, DHEaren bi ikaskuntza-esparruen artean —tutoreen prestakuntza, aholkularitza, behatoki bat eta ESJDHE zientzia-aldizkari bat hartzen dituzte barne—.

2. Mugikortasun duala sustatzea

- Ikasle eta langileentzako nazioarteko mugikortasun-programak sustatzea, askotariko esperientziak izan ditzaten.

3. Langileen mugikortasuna handitzea

- Arlo akademikoko eta industriako profesionalak truke-programetan parte hartzea animatzea, ezagutzak eta jardunbide egokiak parteka ditzaten.

4. Baterako masterrak sortzea

- Hezkuntza dualaren printzipioak barne hartzen dituzten baterako master-programak sortzea, diziplina anitzeko eta mugaz gaindiko lankidetzaren areagotzeko.

5. Industria-doktoregoko programak sortzea

- Erroka handiak ardatz dituzten industria-doktoregoko programak garatzea.

6. Bizitza osoko ikaskuntzarako prestakuntza eskaintzea

- Etengabeko prestakuntzarako aukerak ematea, eskulanaren moldakortasuna eta kualifikazioen hobekuntza lanbide-karrera osoan zehar bermatzeko.

7. Enpresa-lankidetzaren babestea

- Arlo akademikoaren eta industriaren arteko lankidetzaren ahalbidetzea, hezkuntza-programak benetako munduaren beharretara egokitzeko.

8. Baterako ikerkuntza- eta berrikuntza-proiektuak babestea

- Berrikuntza eta aurrerapen teknologikoa bultzatuko dituzten baterako ikerkuntza-ekimenak sustatzea.

9. Ikasleen ekintzailatza-mugikortasuna eta startupen sorreraren babestea

- Enpresari-sena sustatzea ikasleen artean, mugikortasun-programak babestuz eta enpresa berriak sortzeko ekimenak bultzatuz.

3. Liburu Zuriaren helburuak

Hauek dira Liburu Zuriaren helburu nagusiak:

1. Aliantzaren ikuspen eta misio partekatuak elkarrekin garatzea, eta EU4Dual programaren lankide diren 9 erakundeek programaren gainerako urteetan eta ondoren eman beharko dituzten pausoei buruzko orientabide orokorra ematea, esperientzian eta «eginez ikasi» estrategian oinarrituta.
2. EU4Dual programaren bigarren fasearen —2030etik aurrera— epe luzeko ikuspegia batera diseinatzea, Europako lehen unibertsitate-aliantza duala ezartzeko helburuz, eta, horretarako, mugikortasun-aukerak, hezkuntza dualerako eskaintzak eta arlo akademikoaren, industriaren, gobernuen eta ikasleen arteko lotura areagotzea.
3. Interes-taldeekin behetik goranzko eta etengabeko kontsulta-prozesua ezartzea —praktikotasun handiko gomendioen lagin bat—, Europari politika emankorrak eta bereziki pertsonalizatuak diseinatzeko, eskualdean aurrekaririk ez duten programa dualak diseinatu eta ezartzeko aldera.



4. Interes-taldeen oharrak

EU4Dual proiektuan parte hartzen duten askotariko interes-taldeen ohar eta ekarpen nagusien berri emango dugu atal honetan. Ekarpenerok 2024ko apirilaren 9an jaso ziren, Maltan egindako lehen urteko konferentziaren inguruan antolatutako lantegi espezifikoeetan. Horiez gain, Euskal Herrian (ESTIA, Bidarte) 2025eko apirilaren 1ean egindako bigarren urteko konferentzian jasotako ekarpenak ere bildu ditugu.



4.1. Eskualde Gobernuen Kontsulta Batzordea (RGCC, ingelesezko sigletan)

Orientabide/erronka nagusiak

- **Laneko ongizatea:** garrantzi berezia ematea laneko ongizatea hobetzeki, kualifikazio handiko langileak atxikitzeko.
- **Demografiari eta migrazioari lotutako erronkak:** hezkuntza dualak erantzuna eman diezaike aldaketa demografikoei eta etorkinen integrazioari, ikasteko eta lana lortzeko aukerak emanez.
- **Genero-integrazioa:** programa malguak lagungarri izan daitezke emakume gehiago goi-mailako hezkuntzan sar daitezen.
- **Hizkuntza-oztopoak:** enpresa txikietan ingelesaren ezagutza hobetzea eta tokiko unibertsitateetan eskola gehiago ematea, gero eta atzerriko ikasle gehiago hartzeko.
- **Gainbegirale profesionalak:** eredu dualarekin ohituta ez dauden eskualdeetako profesionalak trebatzea, ikasleak eraginkortasunez gainbegira ditzaten.
- **Ikasleen motibazioak aldatzea:** gaur egun, hezkuntza duala ez da arrazoi ekonomikoengatik bakarrik aukeratzen, edo alternatiba profesional gisa; gero eta ikasle akademiko gehiagok esperientzia praktikoaren eta gaitasun profesionalen bidez bereizi nahi dute besteengandik.
- **Kultura-aldaketa baten beharra:** premia handia dago enpresek eta ikasleek partekatuko duten benetako «kultura duala» sustatzeko; programa dualak beren balio praktikoagatik hartu behar dira aintzat, baina baita bikaintasun akademikoaren eredu direlako ere.
- **Eskualde-heterogeneotasuna:** Europako eredu homogeneo eta bateratu bakarra bilatu beharrean —Alemaniakoa edo Frantziakoa bezalakoa, esaterako—, eskualdeek nazio- eta eskualde-mailako testuinguruetara egokitzen diren tokiko esparru sendo eta askotarikoak sortzea izan behar dute helburu.
- **Hezkuntza dualaren ospea:** hezkuntza duala ez da oraindik hartzen kalitate handiko ibilbide akademikotzat, batez ere zenbait herrialdeetako goi-mailako hezkuntza publikoaren ereduetan; hezkuntza dualaren ospea eta pertzepzio publikoa hobetzeko premia larria dago.
- **Industriaren errezeloa:** zenbait eskualdetan —hala nola Estirian, Austrian—, enpresek ez dituzte eredu dualak erabat onartu nahi, «itxurazko kostuak» direla eta; hala ere, gero eta kontzienteago dira programa horiek epe luzera talentuan eta berrikuntzan inbertitzea ekartzen dutela.

- **Nazioartekotzeko beharrak:** eskualde batzuetan, bereziki gogotsu daude nazioarteko ikasleak erakartzeko, baina ez dute agerikotasunik eta horretarako kanalik; hezkuntza duala tresna estrategikoa izan daiteke arazo horri aurre egiteko.
- **Koordinazio-egituren beharra:** batzordeak azpimarratu duenez, garrantzitsua da idazkari nagusi bat izendatzea, RGCCaren dinamika egituratu eta gidatu dezan.

Laguntza-beharrak

- **Teknologiaren ikuspegi errealista:** arlo akademikoko eta benetako munduko aplikazioen arteko arrakala murriztea, enpresako profesionalak ikasgelan txertatuz.
- **Programen malgutasuna:** programak azkar egokitzea enpresen behar berrietara, eredu dualak eta mikrokredentzialak erabiliz.
- **ETE-ei laguntzea:** ETE-entzako administrazio-kargak arintzea, eta GKE-ekiko eta gizarte-enpresekiko lankidetzat sustatzea.
- **Laguntza publiko eta estrukturala:** azkenaldian, zenbait gobernu nazionalak murriztu egin dituzte hezkuntza dualerako eskuragarri dauden funtsak; adibidez, Frantziakoak; beraz, argi eta garbi eskatu behar da finantza-sostengua eta aintzatespena etengabeak izan daitezen, bai nazioan, bai eskualdean.
- **Mentoretza-egiturak:** industria-mentoreek enpresetan duten zeregina garatzeko aukera nabarmendu dute eskualdeek, ikasle dualei laguntzeko, enpresetan sartzen direnean.
- **Ezagutza-trukea eta ereduaren ebaluazio konparatiboa:** eskualdeek hezkuntza duala nola egituratzen eta finantzatzen duten alderatu nahi da —zeinek ordaintzen duen, nola eta zenbat denboran—, eta jardunbiderik onenak gardentasunez partekatu.
- **Industria-doktoregoko programei laguntzea:** industria-doktoregoko programak garatzeko edo finkatzeko interesa adierazi da, nahiz eta programa horiek ezartzeko ardura duten agintariak nazio-mailakoak izan; horren adibide da CIFRE esparrua Frantzian; programa horiek eskuragarriagoak izan behar dute, batez ere ETE-entzat.
- **Mikrokredentzialak eta malgutasuna:** bitzita osoko ikaskuntza (LLL, ingelesezko sigletan) eta mikrokredentzialen sistemak lehentasun estrategiko gisa ari dira sortzen, nahiz eta hainbat eskualdetan ezartzen hasita baino ez dauden.

Konpromisoa

- **Bitzita osoko ikaskuntza:** gobernuak finantzaketa-erregimenak ezarri beharko lituzkete, hala nola ikaskuntzako kontu indibidualak.
- **Lankidetzakonpromisoa:** egitura formalean atzerapenak egon diren arren, hainbat kidek berretsi egin dute kontaktuak partekatze eta eskualde guztien lehentasunak zehazteko konpromisoa: erregulartasun handiagoz biltzea da asmoa, eta aurrea hartzea, gobernantza-erabaki zentralen zain egon gabe.
- **Berrikuntza instituzionala:** parte-hartzaileek onartu dute trantsizio-une berri batean gaudela, eta horrek enpresa-, ikasle- eta erakunde-mota berriak dakarrela; hezkuntza duala aldaketa horren erdigunean dago, eta eskualdeko berrikuntzarako tresna malgu eta sendo gisa baliatu behar da.
- **Inbertsio estrategikoa egitea talentuan:** programa dualak enpresa txikiagoetara zabaltzea izan behar da helburua; izan ere, enpresa horietako asko ereditik deskonektatuta daude gaur egun, baina aukera dute eredu horren potentzialari onura handiak ateratzeko.

4.2.1. Industriaren Kontsulta Batzordea (ICC)

Orientabide/erronka nagusiak

- **Arlo akademikoarekin sinkronizatzea:** curriculumak industriaren beharretara egokitzea eta bizitza osoko ikaskuntza (LLL) sustatzea.
- **Gaitasunak garatzea:** goi-mailako gaitasunak erdigunean jartzea eta aldaketa demografikoek eragindako kualifikazio-eskasiari erantzutea.
- **Etorkizuneko joerak:** pertsonak etorkizun ezezagunetarako prestatzea, arazoetan oinarritutako ikaskuntzaren bidez (PBL, ingelesezko sigletan), eta garapen profesional eta pertsonal zabalagoa azpimarratzea, titulu akademikoetara mugatu beharrean.
- **Arlo akademikoarekin sinkronizatzea:** curriculumak industriaren beharretara egokitzen jarraitzea eta bizitza osoko ikaskuntza (LLL) sustatzea; baterako master-programak garatzen, industriaren ekarpenak ere barne hartu behar dira, eta benetako industria-erronkei zuzenean erantzun behar zaie.
- **Gaitasunen garapena eta moldagarritasun sektoriala:** gaitasunak egiaztatze-sistemak baino azkarrago ari dira eboluzionatzen; unibertsitateek eta enpresek lankidetzan aritu behar dute, sektore bakoitzerako erantzun azkar eta espezifikoak lortzeko.
- **Hezkuntza dualaren ezagutza:** enpresa askok oraindik ez dakite eredu duala zer den eta zer abantaila dituen; baterako ahalegina egin behar da hezkuntza duala ezagutarazteko eta haren balioak sustatzeko, hainbat sektore eta herrialdetan.
- **Talentua erakartzea:** EU4Dual programak talentu-beharrak lehenbailehen identifikatzen lagundu behar die enpresei, eta epe luzerako konpromisoa sortzen, industria-enbaxadoreen eta egiturazko aliantzen bidez.
- **Egiturazko desberdintasunak Europan:** zenbait herrialdetan, Polonian adibidez, oraindik ez dute benetako hezkuntza duala ezarri; horrek asimetriak sortzen ditu parte-hartzean eta itxaropenetan.
- **Rol berriak, industriako profesionalak irakasle:** herrialde batzuetan —esate baterako, Portugalen—, ingurune akademikoetan irakasteko ahalmena ematen die legeak profesionalei; horrek gai estrategikoak eta enpresa-ereduei buruzko gaiak jartzen ditu mahai gainean, enpresek bide hori hartzeko aukera aintzat har dezaten.

Laguntza-beharrak

- **Ekosistemen konbergentzia:** hezkuntza dualaren alde egitea sistema guztietan, arlo akademikoaren eta industriaren arteko distantzia murrizteko.
- **Bekadun kualifikatuak eskura jartzea:** hezkuntza dualerako Europako programa bat garatzea, bekadun kualifikatuak enpresen eskura jartzeko.
- **Atxikitze-tresna:** EU4Dual tresna gisa erabiltzea pertsonak hezkuntza-sisteman atxikitzeko, gradu aurreratuen bidez.
- **Mugikortasuna eta lankidetzat:** nazioarteko lankidetzat eta mugikortasuna sustatzea, kultura-gaitasunak eta komunikazio-trebetasunak handitzeko.
- **ETE-ei laguntzeko programa:** ETE-ek prestakuntza- eta aholkularitza-programa pertsonalizatuak behar dituzte unibertsitateekin konpromisoa hartzeko, bai eta jardunbide egokiak eta enbaxadoreekin batera egin beharreko ekimenak ere, hezkuntza dualaren agerikotasuna eta ezagutza areagotzeko.
- **Zubiak eraikitzea arlo akademikoaren eta enpresen artean:** komunikazioa hobetzea, ikastaroen edukia enpresen itxaropenetara egokitzea eta industria-adituak esparru akademikoan errazago sar daitezen laguntzea.

- **Esparru politiko eta legegileak:** eskolak ematen dituzten profesionalei ziurtagiria lortzen lagunduko dieten legegintza-mekanismoak garatzea eta unibertsitateei ezagutza espezializatua ematen dieten enpresei pizgarriak eskaintzea.
- **Europa osoan hedatzen laguntzea:** EU4Dual programak enpresei lankidetzak akademikoak Europako herrialde guztietara zabaltzen laguntzea espero da, eskualde potentzial berriak ere barne hartuta, hala nola Portugal, Espainia eta Mexiko.
- **Datu-zirkuituak eta atzeraketa:** lan-paketeek industriako datu erabilgarriak behar dituzte; hain zuzen, gaitasun-gabeziei eta aurreikuspenei buruzkoak; informazio hori zuzenean erabili beharko litzateke eduki akademikoa sortzeko prozesuan eta etengabeko hobekuntza-prozesuetan.

Konpromisoa

- **Programarako ekarpenak:** industriaren inguruko esperientziak eta ezagutzak partekatzea, programaren edukiak moldatzeko.
- **Lankidetzak-ekimenak:** industriaren eta unibertsitateen arteko lankidetzak estuagoa sustatzea, praktikak, prestakuntza-saioak, bizitza osoko ikaskuntza eta ezagutzaren zein ekimen estrategikoen trukea erabiliz.
- **Industria-klubaren kontzeptua:** plataforma egituratu bat ezartzea, industria-eragileek EU4Dualekin modu estratifikatu eta fokalizatu batean konpromisoa har dezaten, enpresaren tamaina, sektorea eta heldutasuna oinarri hartuta.
- **Narratibak eta jardunbide egokiak trukea:** hezkuntza dualaren kasu arrakastatsuak nabarmentzea, formatu ulergarri eta praktikoa batean; historiek kontsultarako eta bazkide berriak —batez ere ETEak— erakartzeko tresna izan behar dute.
- **Industria estrategikoki integratzea esparru akademikoan:** unibertsitateentzat zein enpresentzat onuragarria den kultura sustatzea, elkarrekin diseinutako curriculumen, baterako ikerketaren eta sektore arteko mentoretza-programen bidez.
- **Erresilientzia eta lan-merkatuaren ezagutza:** moldakortasunaren kultura sustatzea, industria-eraldaketari aurre egiteko; giza osagaiak plantillaren plangintzan eta hezkuntza dualaren arrakastan duen garrantzia aintzat hartzea.
- **Kontaktu-sarea eta agerikotasuna:** EU4Dual erabiltzea Europan aliantzak sortzeko, eskumenak aurreikusteko eta berrikuntza sustatzeko.

4.2.2. Enpresa Dibulgazioko Batzordearen ekarpenak

Orientabide/erronka nagusiak

- **Trebetasun teknikoetatik harago:** ikasleek prestakuntza akademikoa edo teknikoa baino zerbaite gehiago behar dutela azpimarratu dute interes-taldeek; gaitasun praktikoa garatu behar dituzte, hala nola talde-lanean aritzea, arazoak konpontzea, eta lantokiaren eta kultura sozioekonomikoen dinamika ulertzea, funtsezkoak baitira lan-merkatuan sartzeko.
- **Plantillaren harmonizazioa eta berrikuntza:** unibertsitateak bi funtzio bete behar ditu —ezagutza eskuratzea eta garatzea—, eta ezagutza hori, gradudun berriei ez ezik, lan-merkatuan dauden profesionalei ere helarazi behar zaie.
- **Berrikuntza-ekosistema garatzea:** sendotu egin da berrikuntza-zentroen sare paneuroparra sortzeko ikuspegia; zentro horiek helburu hauek izan behar dituzte:
 - Eskualde-mailako eta mugaz gaindiko mugikortasuna sustatzea.
 - Prestakuntza Europako hainbat herrialdetan ahalbidetzea.
 - Ezagutza-trukearen, lankidetzaren eta industria-konpromisoaren katalizatzaile jardutea.

- **Desberdintasunak ETE-en konpromisoan:** ETE askok ez dute hezkuntza duala ezartzeko beharrezko erakunde- eta finantza-egiturarik; egiturazko eta aholkularitzako tresna espezifikoak behar dira, ezarpena eraginkorra izan dadin.
- **Jasangarritasuna egituraren bidez:** unibertsitateen eta industriaren arteko epe luzerako harremanak ezartzeko, zenbait garapen-fase behar dira —beharrak identifikatzea, elkarrekin diseinatutako proiektuak, irakasleak trukatzeko eta aliantza formalak—; ezinbestekoa da ekosisteman oinarritutako ikuspegi koherente bat aplikatzea.
- **ICCren balioa zalantzan jartzea:** zenbait kidek zalantzak adierazi zituzten ICCren (Industriaren Kontsulta Batzordearen) balio erantsiaren inguruan, eta batzorde horrek hezkuntza dualari egindako ekarpen zehatzak argitzeko beharra dagoela aipatu zuten, batik bat arintasunari eta Europako koordinazioari dagokienez.

Laguntza-beharrak

- **Eskuliburuak eta tresna praktikoen kitak:** ETE-entzako gida orokor bat egin behar da, eta gida horrek ikasle dualak hartzeko jardunbide egokiak, erakunde-integratzioko estrategiak eta Giza Baliabideen sailerako eta mentore akademikoentzako laguntza-materialak hartu behar ditu barne.
- **Talentua eskura izatea eta Giza Baliabideekin lankidetzan aritzea:** unibertsitateek talentua erakartzeko kanpainak zuzendu behar dituzte, eta enpresetan giza baliabideen arloko estrategiak diseinatzeko parte hartu; testuinguru horretan, kualifikazioak birkalifikatzeko eta hobetzeko aukera ere eman behar dute, programa pertsonalizatu bidez.
- **Baliabideen plataformak eta ezagutza-trukea:** ezagutza-gordailu edo «gaitasunen datu-base» nagusi bat behar da, baliabideak, proiektu-ereduak eta jardunbide eraginkorrak finkatzeko.
- **Ikaskuntza malgua industriarako:** beharrezkoa da mikrokredentzialen programak, irakasle-trukeak eta prestakuntza modularreko formatuak egitea besteak beste, industriaren epe eta beharretara egokitzeak.
- **Politikak harmonizatzea:** enpresen partaidetzarako arau argi eta sistematikoak behar dira EU4Dual aliantzan, bai eta, arau horiek babesteko, enpresentzako onurak irudikatuko dituzten balio gardenen matrize bat ere.

Inplikazioa

- **Innovation Challengearen formatua:** 24-Hour Innovation Challenge ekimena konpromiso-eredu arrakastatsua dela nabarmendu da —horretan, enpresek euren benetako arazoak aurkezten dituzte, ikasleek elkarlanean konpon ditzaten—; esperientzia oinarritutako ikaskuntza hobetzen du, eta industriaren eta esparru akademikoaren arteko erlazioa sendotzen.
- **Batzordeen baterako ekimenak:** BOC eta ICC batzordeak koordinatzeak —adibidez, baterako bilerak eta saio partekatutako— enpresa- eta erakunde-eragileen jardura eta mezu bateratuak bermatzen ditu.
- **Epe luzerako aholkularitza-egiturak:** BOC batzordea irakasleek osatutako aholkularitza-talde berezi bat sortzeko asmotan ari da; horrez gain, orrialde bateko laburpen-dokumentu bat argitaratuko du, EU4Dual enpresa-eremurako dituen produktu guztiak aurkezteko.
- **Lankidetzaproiektuen trukea:** jarduketan artean, nabarmentzekoak dira ESTIAko bigarren mailako ikasleen proiektuak partzuergoko bazkideei eta kanpoko interes-taldeei irekitzea, berrikuntza-erronkak zabaltzea eta «Bask Invest» eta beste ekimen batzuk nazioartekotzea.
- **Egin beharreko estrategikoak:**
 - Historia arrakastatsuak partekatzea, negozio-aukerak identifikatzea eta ekimenak egitea.
 - Irakasleen aholkularitza-taldea formalizatzea, laburpenak egitea eta lankidetzaplatamak irekitzea.

4.3. Ikasleen Kontseilua



Orientabide/erronka nagusiak

- **Lan-esperientzia egokia lortzea:** ikasleak motibatuta sentitzen dira, euren ezagutza ingurune errealean erabiltzeko aukera ematen bazaie ikasten hasten direnetik.
- **Finantza-independentzia:** ikasketetan zehar soldata bat jasotzea funtsezkoa da ikasle askorentzat.
- **Enplegarritasun handiagoa:** lan-esperientzia integratuak nabarmen hobetzen ditu CVak eta lan-aukerak.
- **Lan-bizitzarako trantsizio arina:** enpresen mentoretzak lan-munduan progresiboki sartzea errazten du.
- **Ibilbide profesional argiak:** profesionalakiko interakzioak graduatu ondorengo helburuak gehazten laguntzen die ikasleei.
- **Lan-karga akademiko handia:** fase teoriko trinkoek presio akademiko handia eragiten dute.
- **Ikasketen eta lanaren arteko aldi baterako gatazka:** laneko betebeharrak ikasteko eta azterketak prestatzeko denbora laburtzen dute.
- **Errendimenduari lotutako estresa:** batzuetan, aurrerapen akademikoa erabakigarria da soldadari eusteko.
- **Itxaropen handiak:** ikasleek errendimendu ona izatea espero da, bai unibertsitatean, bai lan-ingurunean, eta horrek presioa eta estresa eragiten ditu.
- **Gizarte-bizitza urria:** denbora asko ematen da ikasketetan eta lanean, eta denbora gutxi geratzen da bizitza pertsonalerako.
- **Laneko segurtasunik eza graduatu ondoren:** enplegu-bermerik ezak ikasleen arteko lehia areagotzen du.
- **Herrialdeen arteko desberdintasunak:** eredu duala izugarri aldatzen da parte hartzen duten herrialdeen artean, eta, ondorioz, ikasleek esperientzia desberdinak izaten dituzte.

Laguntza-beharrak

- **Finantza-laguntza handiagoa:** bekak edo soldatak handiagoak izanez gero, ez litzateke beharrezkoa izango aparteko lanak bilatzea.
- **Lanean hasteko prestakuntza:** ikasleek enpresa-kulturari, lan-eskubideei, kontratuei, soldatei eta fiskalitateari buruzko prestakuntza behar dute.
- **Tesien koordinazio hobea:** azken tesietarako itxaropen akademiko eta enpresarialak egokitzeko beharra dago.

- **Lan-kargaren aitorpen egokia:** ECTSaren esleipenek zehaztasun handiagoz islatu behar dute ikasleen benetako lan-karga.
- **Enpresen barruko aitorpena:** ikasleek nahi dute euren ekarpenak eta rolak balioestea enplegatzaileek.
- **Enplegu-bermeak:** graduatu ondoren lan-eskaintza izateak presioa txikituko luke, eta ikasleen atxikipena handituko.
- **Eduki akademiko esanguratsua industriarentzat:** eskoletako materialak profesionalen eta industriaren premietara egokituta egon beharko luke.
- **Adituen eskolak:** sektoreko profesionalak emandako eskolak bereziki aberasgarritzat jotzen dira.
- **Unibertsitatearen eta enpresaren arteko etengabeko elkarriketa:** zenbait mekanismok — besteak beste, hileko buletinak eta baterako proiektuak — koordinazioa eta elkarrekiko ulermena hobetzeko balio dezakete.

Inplikazioa

- **Harreman profesionalak ezartzeko aukerak:** ikasketetan zehar profesionalekin topaketak izatea lagungarria izaten da ikasleentzat, ibilbide profesionala aukeratzeko eta etorkizunera begira aukerak izateko.
- **Unibertsitateak zuzendutako ekitaldiak enplegatzaileekin:** enplegu-azokek, enpresen aurkezpenek eta antzeko beste ekitaldi batzuek erraztu egiten dute lan-merkatuarekin konpromiso goiztiarra izatea.
- **Laguntza profesionalerako zerbitzuak:** CVak egiteko lantegiak eta lan-elkarriketak prestatzeko saioak oso preziatuak izaten dira.
- **Komunikazio iraunkorra unibertsitatearen eta enpresaren artean:** programan zehar etengabeko konpromisoa izateak harmonizazioa eta moldagarritasuna bermatzen laguntzen du.
- **Berdinen arteko laguntza-sareak:** Ikasleentzat onuragarriak dira, bai unibertsitateetan eta bai lan-ingurunean, laguntza-talde formal eta informalak.
- **Nazioarteko sareetarako sarbidea:** enpresa-sareei esker atzerriarekin konektatzeko edo atzerrian lan egiteko aukerak baloratu egiten dira.
- **Garapen integralaren ikuspegia:** ikasleek espero dute programa dualek, arrakasta akademikoa ez ezik, hazkunde pertsonala ere bultzatuko dutela.

4.4. Aholku Batzordea

Orientabide/erronka nagusiak

- **Nazioartekotzea eta mugikortasuna:** lanbide-mugikortasun arduratsua sustatzea eta lanbide-heziketako politika eraginkorrak diseinatzea.
- **Balioak eta epe luzeko pentsamendua:** gizarte-balio sakonak eta epe luzeko pentsamendu estrategikoa azpimarratzea hezkuntza-esparruan.
- **Estrategia integralak:** tokiko, eskualdeko, nazioko eta nazioarteko mailak integratuko dituzten estrategiak garatzea.

Laguntza-beharrak

- **Aitorpen-sistemak:** aurretiko hezkuntza eta lan-esperientzia aitortzeko sistemak martxan jartzea, batez ere etorkinei begira.
- **Prozesu berritzaileak:** gizarte- eta industria-beharrei erantzuteko estrategia berriak garatzea.
- **Ordezkaritza parekidea:** arlo akademikoko eta industriako profesionalen ordezkari itza parekidea bermatzea hezkuntzan.

Konpromisoa

- **Ametsak eta anbizioak:** nazioarteko bazkideekin lankidetzan aritzea —Afrika iparraldeko unibertsitateak barne hartuta—, berrikuntza sustatzeko.
- **Ikuspegi praktikoa:** ekimenak emaitza errealista eta eraginkorretan oinarritzea, eta kontakizuna hobetzea, proiektua erakargarriagoa izan dadin.

4.5. Future Lab-i buruzko lantegia – Interes-taldearen oharrak

Orientabide/erronka nagusiak

- **Bikaintasun dualaren birdefinizioa:** ikasleek ikasketa dualen programetan duten esperientzia berriz diseinatzea, diseinuaren metodologiaren ikuspegia aintzat hartuta, eta ikasleek esparru akademikoaren eta industriaren arteko koordinazio administratibo soila baino askoz gehiago espero dutela kontuan izanda; benetan integratua eta eraldatzailea den esperientzia bat bilatzen dute ikasleek.
- **Ikasleak ardatz:** prozesuak esplorazioaren erdigunean jartzen ditu ikasleak, enpatia bultzatutako berrikuntza sustatuta, ikasle horien behar aldakorak asetzeko.
- **Matrikulatu aurretik mundu erreala ezagutzeko beharra:** hainbat aldiz iradoki da ikasleek enpresa-inguruneetan sartu behar dutela ikasketak formalki hasi aurretik, kontzientziatzeko eta motibatzeke.
- **Orientazioaren kultura:** parte-hartzaileak ohartu dira egituratutako eta ondo prestatutako orientazio-sistemen premia handia dagoela, bai esparru akademikoan, bai industrian, batez ere lehen ikasturtean.
- **Mundu akademikoaren eta lan-munduaren artean zubiak eraikitzea:** ikaskuntza akademikoaren (AC) eta lan-munduaren (WoW) arteko harremana sendotzeko beharra indartu egin da; izan ere, esperientzia dual baliotsu baten giltzarritzat hartu da.

Laguntza-beharrak

- **Presentzia goiztiarra industrian:** lan-ingurunean «aurretiko esperientziak» sustatzea matrikulatu aurretik, itxaropen errealistak eta konpromiso handiagoa lortzeko.
- **Gamifikatutako ikaskuntza-inguruneak:** jolasean oinarritutako metodologiak sartzeko ingurune akademikoan zein enpresan, motibazioa, autonomia eta testuinguruaren araberrak aplikazioa areagotzeko.
- **Orientatzaileen prestakuntza eta garapena:** industriako profesionalak bilatzea eta haiei ziurtagiria eta prestakuntza ematea, mentore gisa jardun dezaten; gizarte-gaitasunetan, enpatian eta sistema dualaren arintasunean jartzea arreta.
- **Adimen artifiziala (AA) integratzea, ikasleei laguntzeko:** AAren tresnak erabiltzea, laguntza pertsonalizatua emateko, aurrerapenen jarraipena egiteko eta ikasleen ibilbide orokorra hobetzeko.
- **Ikasleen osasun mentala zaintzeko laguntza:** ikasleei orientazioa eskaintzea, ikasketa-programa dualean duten lan-karga handiari aurre egiteko gai izan daitezen.
- **Agerikotasuna eta orientazioa:** batxilergoko ikasleei programa dualei buruzko informazio zehatz eta erakargarria ematea, formatu interaktiboak erabiliz.

Inplikazioa

- **Ikasle ohien sareak:** ikasle ohiekiko harremana sendotzea, kide izatearen sentimendua eta epe luzerako balioa indartzeko; ikasle ohiek enbaxadore eta mentore gisa ere jardun dezakete.
- **Ikasleak ahalduntzea:** pentsamendu autonomia eta erabakiak hartzeko prozesua sustatzea, ikaskuntzaren emaitza nagusi gisa; ikasleak ikaskuntza-ibilbidearen sortzailekidetzat hartu behar dira.
- **Diseinuaren metodologia hezkuntzarako:** erabiltzailea ardatz duten berrikuntza-jardunbide sortzaileak instituzionalizatzea —adibidez, Future Lab-en erabiltzen direnak— harbertasuna eta baterako eraikuntza sustatzeko.
- **Interes-taldeen arteko lankidetzak:** Future Lab-eko taldeak interesa agertu du Ikasle Kontseiluarekin (SC), Industriaren Kontsulta Batzordearekin (ICC) eta Eskualde Gobernuen Kontsulta Batzordearekin (RGCC) etengabeko trukea egiteko, denen arteko harmonizazioa eta aberastea bermatze aldera.

5. Gomendioak

Interes-taldeen ekarpenak oinarri hartuta, gomendio hauek proposatzen ditugu:

5.1. Curriculumen garrantzia handitzea

- Curriculumak industriako bazkideekin lankidetzak estuan garatzea, lan-merkatuko oraingo eta etorkizuneko beharrak asetzeko.
- Aldizka egunera daitezkeen ikaskuntza malguko moduluak sortzea, aldaketa teknologiko eta industrialetara egokitu daitezen.

5.2. Lankidetzak finkatzea

- Unibertsitateen eta industria-sektoreen arteko lankidetzak formalak ezartzea, ikasleen praktikak eta lankidetzako proiektuak errazteko.
- Enpresek hezkuntza dualeko eta lanean oinarritutako ikaskuntzako programetan parte hartzeko pizgarriak sortzea; esate baterako, dirulaguntzak eta zerga-salbuespenak.

5.3. Azpiegituren garapena bultzatzea

- Funtsak bideratzea punta-puntako hezkuntza-instalazioak eraikitzen eta ikaskuntza digitaleko plataformak garatzera.
- Hezkuntza dualeko eta lanean oinarritutako ikaskuntzako programak barne hartzen dituzten eskualde-garapenerako ekimenak sustatzea, tokiko lan-merkatuaren beharrak asetzeko.

5.4. Kalitatea eta berrikuntza bermatzea

- Kalitate-kontrolerako esparruak ezartzea, hezkuntza dualeko eta lanean oinarritutako ikaskuntzako programak gainbegiratu eta ebaluatzen.
- Jardunbiderik onenen eta irakaskuntza-metodo berritzaileen trukea sustatzea, EU4Dual sarearen barruan zein saretik kanpo.

5.5. Jasangarritasuna sustatzea

- Hezkuntza dualeko eta lanean oinarritutako ikaskuntzako programak hobetzeko eta etengabe ebaluatzeneko mekanismoak ezartzea.
- Epe luzeko finantzaketa eta laguntza politikoa ziurtatzea, ekimen horien jasagarritasuna eta eskalagarritasuna bermatzeko.

5.6. Hezkuntza duala berriro kontzeptualizatzea, aktibatzaile sozial eta estrategiko gisa

- Goi-mailako hezkuntza duala birkokatzea, trantsizio sozial nagusiei —berdea, digitala, demografikoa eta inklusio soziala— heltzeko tresna gisa, enplegarritasun hutsetik harago.
- Programa bakoitza sustatzea, esplizituki lagun dezan Europako edo eskualde-mailako misio nagusi bat gutxienez lortzen; adibidez, energia-trantsizioa, industria-subiranotasuna eta landa-biziberritzea.
- Hezkuntza duala eskualde-garapenerako estrategietan irmoki txertatzea, oparotasun inklusiboa eta lurralde-koheretza bultzatuko dituen faktorea izan dadin.

5.7. Esperientzia malguak eta ahaldundutzaileak diseinatzea, ikasleak ardatz hartuta

- Ikasleak sistemaren erdigunean jartzea, eta autonomia, malgutasuna eta pertsonalizazioa sustatzea.
- Ikaslearen garapen integrala ahalbidetzea, orientazio-, aholkularitza- eta ongizate-sistemen eta pedagogia inklusiboen bidez (batez ere emakumeentzat eta lehen belaunaldiko ikasleentzat; hau da, ikasketarik gabeko gurasoak dituztenentzat).
- Laneratzeko goiztiarra eta murgiltzailea sustatzea lan-ingurunean —ildo horretan, «esperientzia aurredualek» nabarmentzen dira—, balio handiko lanbide-orientazioa bermatzeko.
- Onarpen-, baliozkotze- eta progresio-prozesuetan alde aurreko esperientzia eta ikaskuntza informala aitortzea; esate baterako, VAE (lortutako esperientzia balidatzea), mikrokredentzialak eta ziurtagiri modularrak.

5.8. Eskualdeko eta nazioz gaindiko ekosistema dualak egituratzea

- Eskualdeko berrikuntza-zentroak sortzea, unibertsitateen, agintari publikoen eta enpresen zuzendaritzapean, hezkuntza duala tokian bertan finkatzeko.
- Jarraitutasun estrategiko eta operatiboa bermatzea, koordinazio-egitura berezien bidez; besteak beste, eskualdeko idazkaritzen, industria-klubaren eta baterako mentoretza-batzordeen bidez.
- EU4Dualen magnitudea aprobetxatzea, mugaz gaindiko praktikak, baterako master-programak eta irakaskuntza-baliabide partekatuak ahalbidetzeko.
- Herrialdeen arteko desberdintasunei heltzea, gutxienerako estandar komun batzuk ezarri, eta, aldi berean, tokiko egokitzapenari eutsiz.

5.9. Industria eta lan-mundua esparru akademikoan integratzea

- Industriako profesionalak hezitzailekideztat hartzea, eta ziurtapen- eta estatus- programa formalak garatzea —irakasle bisitaria, industria-mentorea...—.
- ETE-en parte-hartzea sustatzea, eskuliburu praktikoen, txantilo legalen eta kontratu sinplifikatuen bidez.
- Lankidetz-formatuak —esaterako, 24h Innovation Challenge izenekoak— campus guztietara zabaltzea, inplikazio dualerako ekimen enblematikoa den aldetik.
- Ikerkuntza, irakaskuntza, berrikuntza eta komunitatearentzako zerbitzuak barne hartzen dituzten proiektu kodiseinatuak babestea.

5.10. Kalitatea, erakargarritasuna eta epe luzeko parte-hartzea bermatzea

- Nazioz gairikiko kalitatea bermatzeko esparru bat ezartzea, interes-taldeekin batera garatua eta benetako eragina izateko helburua duena: ikaskuntzaren emaitzak, ongizatea, enplegarritasuna eta inklusioa.
- Hezkuntza dualerako Europako behatoki bat garatzea, erreferentzia-parametroak, datu-panelak eta politikak gainbegiratzeko funtzioak barne hartuta.
- Ikasle ohien narratibetan, komunikazioan eta konpromisoan inbertitzea, proposamen dualen erakargarritasuna eta ospea hobetzeko.
- Finantza-pizgarriak sortzea —adibidez, banakako ikaskuntza-kontuak eta lan-praktiketarako bekak, Erasmus programaren antzekoak—, hezkuntza dualean sartzeko aukerak demokratizatzeke.

5.11. Bizitza osoko ikaskuntza eta trantsizio bizkorak ahalbidetzea

- Hezkuntza duala bizitza osoko ikaskuntza-ekosistemen ardatz bihurtzea, kualifikazioak hobetzeko, birkalifikazioa bideratzeko eta trantsizio profesionalak ahalbidetzeko.
- Laneko mugekin bateragarriak diren programa modular bizkor eta metagarriak sustatzea, batez ere ikasle helduentzat.
- AArekin funtzionatzen duten laguntzaile digitalen ezarpena bizkortzea, laguntza pertsonalizatzeko eta atxikipena areagotzeko.
- Industriaren arloko doktoregoak eta berrikuntza-bekak bultzatzea, I+G ekosistemen barruan talentu-kanalak sustatzeko.

5.12. Esparru politiko bizia instituzionalizatzea

- Liburu Zuria urtero eguneratuko den tresna iteratibo eta bizi gisa tratatzea; hain zuzen, interes-taldeen berrelikadura-zirkuituei eta dagozkien eremu espezializatuetao esperientziazioari esker eguneratuko da.
- EU4Dual aliantzaren barruan gune pilotuak eta politika-laborategiak sortzea, hezkuntza dualerako lege-, akademia- edo gobernantza-eredu berriak probatzeko.
- Estatuko eta EBko agintariekin batera legegintzako proposamenak garatzea, tokiko eta nazioz gairikiko ekimenetan lortutako emaitza eta irakaspenetan oinarrituta.
- «Eginez ikasi» estrategia EU4Dual aliantzaren gobernantza-kulturan txertatzea, eta denen artean probatu eta baliozkotu dena soilik zabaltzea.

6. Ondorioa

EU4Dualen Liburu Zuriaren 2025. edizioa Europako goi-mailako hezkuntza dualaren politikaren erreferentziazko dokumentu estrategiko eta funtsezko bat da. 2024an egindako lanaren ondorioz sortu zen, baina iaz interes-taldeen biltzar eta lantegi guztietan jasotako ikuspegi guztiak ere biltzen ditu. Interes-taldeon artean, hauek nabarmentzen dira: eskualdeko gobernua, industriaren arloko liderrak, ikasleak, aholkularitza-organoak eta laborategi esperimentalak.

Dokumentu eguneratu honek ez du aurretiazko ikuspegia adierazten dagoeneko. Izan ere, Europa osoan hezkuntza dualaren eta lanean oinarritutako ikaskuntzaren etorkizunean aktiboki diharduten eragileekin denbora errealean garatutako praktikak, elkarriketak eta baterako eraikuntza ditu oinarri.

Liburu Zuriak berresten du goi-mailako hezkuntza duala ez dela hezkuntza-modalitate huts bat, Europako lehentasunik premiazkoenei erantzuteko gai den estrategia sozial eta sistematiko bat baizik; hain zuzen ere, hauei: trantsizio berdea eta digitala, lurralde-garapen inklusiboa, lan-merkatuaren erresilientzia, bizitza osoko ikaskuntza eta etorkizuneko belaunaldien ahalduntzea.

Interes-taldeek askotariko ekarpenak egin dituzte, eta dokumentu honetan jaso eta laburbildu dira. Ekarpenok funtsezko hainbat lehentasun jorratzen dituzte:

- **Ikasleak** ibilbide dualen **erdigunean** jartzeko beharra, malgutasuna, orientazioa, aintzatespena eta ekitatea eskainiz.
- **Industriaren eta esparru akademikoaren arteko aliantzen** garrantzi estrategikoa, eta ETE-ek eginkizun garrantzitsuagoa izatea talentuaren garapenean.
- **Eskualdeko berrikuntza-ekosistemetan hezkuntza duala finkatzeko** aukera, aldi berean kohesioa eta nazioz gairik mugikortasuna bermatuta.
- Inpaktua jasagarritasunez zabaltzeko **tresna zehatzak, eredu malguak eta gobernantza-esparru bizkorak** eskatzea.
- **Hezkuntza duala Europako enplegu- eta hezkuntza-agendaren zutabe nagusietako** bat izateko premia.

EU4Dual aliantzak konpromisoa hartzen du Liburu Zuri hau **tresna politiko bizi** bihurtzeko. Urtero berrikusi, hobetu eta baliozkotuko du, interes-taldeen parte-hartze aktiboari eta hura gauzatzearen inguruan jasotako oharrei esker. Hortaz, aliantzak **eginez ikasi** ikuspegia hartzen du, eta ikuspegi hori erreforma sistematikoen, proiektu pilotuen eta politika bideragarrien bidez gauzatuko du.

Industriako ordezkarien, tokiko gobernuetako arduradunen, ikasleen ordezkarien eta EU4Dual proiektuaren Aholku Batzordeko kideen ekarpen horiek aukera emango dute hezkuntza dualaren eta lanean oinarritutako ikaskuntzaren ibilbideak hobeto ulertzeko Europa mailan, haiek optimizatzeko, unibertsitateen arteko aurrekaririk gabeko aliantza horrek eskainitako eta frogatutako lehen «produktuei» esker.

Lehen gomendio-zerrenda hori betetzen bada edo hartan lan egiten hasten bada, proiektua nabarmen lagungarria izan daiteke Europar Batasunaren moldakorrago eta kualifikatuagoa garatzeko, Europar Batasunaren mundu osoan azkar aldatzen den lan-merkatuaren eskariei erantzuteko gai izan dadin, munduko ekonomian Europar Batasunaren lehiakortasuna bermatzeko.

Orientazio-dokumentu honek iparrorratz gisa balioko du, hauetarako:

- EU4Dual (2025-2026) proiektuaren hurrengo faseak eta ondorengo ekimenak gidatzeko.
- Europako 2030etik aurrerako hezkuntza-esparrurako proposamenak eratzeke.
- Erreforma nazionalak eta EBko politikari buruzko elkarriketa bideratzeko.

- Hezkuntza duala etorkizun erresiliente, berde eta inklusibo baten katalizatzaile gisa erabili nahi duten beste sektore eta eskualde batzuk inspiratzeko.

EU4Dualaren ikuspegia —goi-mailako hezkuntza dualaren aliantza munduko zabalena, integratuena eta misioa burutzero bideratuena izan dadin lortzea— lan kolektiboko programa batek babesten du orain. Eguneroko hezkuntza duala bizi, zuzendu eta jasotzen duten pertsonekin batera sortu da programa hori.

Hau hasiera baino ez da.

Ohar garrantzitsua

2025eko edizio hau EU4Dualen Liburu Zuriaren bigarren bertsioa da, eta EU4Dual aliantzaren urteko lehen eta bigarren konferentzietan (hurrenez hurren, 2024ko apirilaren 9ko Maltakoan eta 2025eko apirilaren 1eko Frantziakoan— antolatutako interes-taldeen biltzar eta lantegietan jasotako ekarpenak eta oharrak kontuan hartuta egin da.

Beraz, nahiz eta hasierako ekarpen horiek aintzat hartu behar diren inolako zalantzarik gabe, eta proiektua amaitu arte oso baliagarriak izan daitezkeen —bai eta ondoren ere, aliantzaren pertsona juridikoa eratu ostean— egingo diren jarduerak gidatzeko, kontuan hartu beharra dago proiektuaren urte berri honetan intres-talde guztiekin antolatuko diren beste hainbat bilera, jarduera eta interakzioen ondorioz esperientzia eta ekarpen berriak sortuko direla. Oso emankorrak izango dira esperientzia eta ekarpen horiek, eta EU4Dual proiektuaren «eginez ikasi» estrategia eta ondorengo jarduerak aberastuko dituzte.

Halaber, etengabe gehitzen diren ezagutza eta ekarpen horiek guztiek dokumentu bizi hau aberasteko ere balioko dute; izan ere, konpromisoa hartzen dugu 2026an gutxienez EU4Dualaren Liburu Zuri honen bertsio eguneratu bat egiteko.

EU4Dualeko Enpresa Dibulgazioko Batzordeko kideek batera proposatu eta baliozkotu dute lan-dokumentu hau 2025-09-05ean egindako hileko bilkuran.



EU4Dual proiektua dela eta

EU4Dual heziketa dualaren erreferentzia globalik onena da. Munduko hezkuntza dual integratuko erakunderik handiena da gurea: diziplina anitzeko erakundea, campus ugari dituen eta arlo akademikoa, industria eta eskualdeak ezin hobeto integratzeko konpromisoa duena. Baterako ezagutza espezializatua aprobetxatzen dugu, hezkuntza dualaren bidez gizarteari industriaren erronka globalak gainditzeko laguntzeko, Europa ekologikoagoa, zuzenagoa eta ekonomikoki emankorragoa izan dadin.